

# **1- IRAKURRI TESTUA ARRETAZ.**

## **JON JOLASTOKIAN**

**Gelako neska-mutil guztiak jolastokian daude. Batzuk, futbolera jolasten ari dira, beste batzuk harrapatzera jolasten ari dira.**

**Jon saskibaloira jolasten ari da. Joni saskibaloia asko gustatzen zaio. Jon oso ona da saskibaloian jolasten.**

**Jon, Mikel eta Shilinekin jolasten ari da. Mikelek baloia saskira botatzen du, baina ez da sartzen. Jonek baloia hartzen du, hiru bote ematen ditu eta saskira botatzen du.**

**Baloiak hasieran, egurraren kontra jotzen du. Gero uztaiaren ingurutik birak ematen ditu eta azkenik, saskian sartzen da.**

**-Oso ondo, Jon !- esaten dio Shilinek.**

**-Primeran egin duzu. Zorionak!- esaten dio Mikelek.**

## **2- AUKERATU ERANTZUN ZUZENA**

**1.- Neska-mutilak ... daude.**

- Gelan
- Jolastokian
- Klean

**2.- Jon...**

- Futbolera jolasten ari da.
- Tenisera jolasten ari da.
- Saskibaloira jolasten ari da.

**3.- Joni...**

- Saskibaloia gustatzen zaio.

- Igeriketa gustatzen zaio.
- Futbola gustatzen zaio.

#### 4.- Jon...

- Aitor eta Janirerekin jolasten ari da.
- Jone eta Nahiarekin jolasten ari da.
- Mikel eta Shilinekin jolasten ari da.

#### 5.- Mikelek...

- Baloia saskian sartzen du.
- Baloia ez du saskian sartzen.
- Baloia gora botatzen du.

### 3- AUKERATU EGIA EDO GEZURRA DEN:

Jon futbolera jolasten ari da.

Jon Aitor eta Peiorekin jolasten ari da.

Joni saskibaloia gustatzen zaio.

Jonek baloia Mikeli pasatzen dio.

EGIA	GEZURRA

Jonek baloia saskian sartzen du.

--	--

#### 4.- ESALDIAK OSATU.

1.- Jon \_\_\_\_\_ jolasten ari da.

2.- Joni \_\_\_\_\_ gustatzen zaio.

3.- Jon, \_\_\_\_\_ eta Shilinekin jolasten ari da.

4.- Jonek baloia \_\_\_\_\_ sartzen du.